

**GAZTEENTZAKO BALIABIDE  
HEZIGARRIEN KATALOGOA  
GAZTERIA ZERBITZUA 2018-2019**

## **Sarrera:**

Irakasleek gazteekin egiten duten lana ukaezina da; izan ere ardatz hori gure hirian martxan jarri diren gazteria-politikak egiteko zutabeen artean agerian egon da. Azken urteetan Gazteria Zerbitzua hezkuntza munduko profesionalekin batera tresna hezigarriak garatzen joan da, irakasleek bere eguneroko lanean uztartu ahal dituztenak, hain zuzen ere.

Espainiako Senatuak eginiko **Gazteriaren liburu zurian** agertzen den moduan, hona hemen ekarpen batzuk Hezkuntza munduarekin lan egiteak duen garrantzia azpimarratzeko:

*“Europar, joera esanguratsuenek eta berriek haxe adierazten dute: udalek hezkuntza arloan dituzten kompetentziak gazteria-politiken arloan kokatu behar direla. Eginiko ebaluazioek diotenaren arabera, uztarketa horrek ondo funtzionatzen du Gazteria-politiken berariazko baliabide berezituak pisuzkoak direnean. Horren bitartez, gazteria-politikak udaletako hainbat arlotan (Hezkuntza, Enplegua,..) zuzendaritza-espazio bihurtuko dira.*

*Beste aldetik, aipatu behar da hainbat autonomia erkidegok eta udalek gero eta konpromiso handiagoa hartu dutela hezkuntzako ekintza osagarriak garatzeko (bereziki etorkinekin zerikusia dutenak); horrek hezkuntzako ekintza osagarrien baliabideen gastuak gehitzea ekarri du. Ekintza horiek erraz dezakete beste udalen arloekiko koordinaketarako bidea, besteak beste gazteria arlokoenak”.*

Hona hemen hezkuntzarako baliabideen sorta. Uste dugu irakasleei lagundu ahalko diela hemen agertzen den proposamenaren bat bere hezkuntza lanean sartzeko.

**Vitoria-Gasteiz, 2018**  
**Gazteria Zerbitzua**

## BALIABIDEA: duIN! Gida, gazteen arteko gatazkak era onean konpontzea

### Deskribapena



duIN! gidan, nolanahi ere, gazteak hazteko aukeratzat eta tresnatzat hartzen da gatazka. **Gazteen elkarbizitzarako hezkuntza** lantzen duen proposamen bat da, eta gizarte demokratikoago, bidezkoago, solidarioago, inklusiboago eta baketsuago bat eraikitzea du xede.

Bakearen kulturaren baloreetan oinarritutako hiritargoa osatzearen aldera jotzen du, betiere helburutzat hartuta egokitu ahal izatea ikaragarri konplexua den testuinguru sozialera eta gero eta errealitate askotarikoagoa, ezezagunagoa eta aldakorragoa den eta, zalantzarik gabe, izango dena.

Gidaren hasieran, gatazkarako hurbilketa teoriko labur eta landu bat egiten da, fenomeno horren konplexutasuna ulertu ahal izan dadin, eta "**Erreminta praktikoek kutxa**" bat eskaintzen du. Bertan, internet bidez eskura daitezkeen gazteekin lan egiteko dinamika eta metodologia didaktikoak aurkezten dira.

Gatazka era positiboan lantzeko **20 esperientzia** (autonomia-erkidegoak, Europa eta nazioarteko esperientziak) aurkezten dira, eta horiek erraz identifikatzeko moduko hainbat **ekintza-eremutan** antolatuta daude ikono grafiko bidez: "Kultura arteko elkarbizitza", Jazarpena/ Bullyinga, Sareko segurtasuna", Espazio publikoen erabilera, Indarkeriaren prebentzioa, Generoa/ baterako hezkuntza, Ekologia", Desberdintasuna / garapena lortzeko heziketa". .

### Formatua

Gida-katalogo birtuala

### Hartzaileak

Edozein hezkuntza arlotan 12 eta 20 urte bitarteko gazte taldeekin lan egiten duten gizarte eta hezkuntzako eragile guztientzat.

### Lortzeko

Deskargatu hemen: [duIN! Gida: gazteen arteko gatazkak era onean konpontzea](#)

### Harremanetarako

Mertxe Altuna (Gazteria Zerbitzua). Teléfono: 945 16 13 11  
Posta elektronikoa: [juventudt1@vitoria-gasteiz.org](mailto:juventudt1@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Gazteak hazteko aukeratzat eta tresnatzat hartzen da gatazka.  
Teoria eta esperientzia praktikoak.

## BALIABIDEA:

“Desbantaila egoeran dauden gazteentzako gida”



### Describapena

Gida honek baliabide publikoak, elkarteek emandakoak eta pribatuak, zuzenekoak edo Internetekoak, biltzen ditu, hainbat ataletan sailkatuta (osasuna, hezkuntza, enplegua, familia, genero eta sexu-orientazioa eta desgaitasuna edo mendekotasuna). Tresna honek gazteei lagundu nahi die dauden baliabideak azkar eta erraz bilatzen. Era berean, gazteekin lan egiten duten agenteei ere lagundu nahi die.

Baliabide bakoitzean deskribapen txiki bat aurki daiteke. Bertsio luze eta zabalagoa lortu nahi bada, baliabide guztien web orriak agertzen dira.

### Formatua

Gida honek formatu elektronikoa dauka: gida birtuala. Bi bertsio eskaintzen dira:

- 1.- Gizarte eta hezkuntzako eragile guztientzako bertsio luzea eta zabala.
- 2.- Gazteentzako formatu interaktiboa.

Bai euskaraz, bai gazteleraz aurki daiteke.

### Hartzaileak

Gizarte-bazterketak sor lezakeen arazoren bat duten eta nora joan ez dakiten 14 eta 30 urte bitarteko gazteak.

Horrez gain, gazteekin lan egiten dutenek ere erabil ahal izango dute.

### Lortzeko

Deskargatzeko, hemen:

- [Bertsio erreza eta interaktiboa.](#)
- [Bertsio luzea eta hizkuntza landuarekin.](#)

### Harremanetarako

Sergio García (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12  
Posta elektronikoa: [planjovent@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjovent@vitoria-gasteiz.org)

## BALIABIDEA: “Gazteentzako laneko gida”

### Deskribapena



Gasteizko Udalak, Arabako Abokatuaren Elkargoarekin batera, tresna elektronikoa hau sortu du. Bertan, erraz azalduta laneko eskubideei buruzko informazioa eta baliabideak biltzen dira.

Helburu nagusia lan munduko kontzeptu eta eduki funtsezkoenak erraztea da. Hortaz, gazteei zalantzak argituko dizkiete eta kalitateko enplegua eta gizarte eta ekonomia eskubideak lortuko ahal izango dituzte.

Gazteentzako laneko gidak 4 atal ditu:

- Kontratazioa.
- Lan baldintzak.
- Gizarte-Segurantzako prestazioak
- Laneko arriskuen prebentzioa.

### Formatua

Gida honek formatu elektronikoa dauka (gida birtuala)

Bai euskaraz, bai gazteleraz aurki daiteke.

### Hartzaileak

Hartzaile nagusiak, laneko lehen esperientziara hurbiltzen diren eta lan munduaren inguruko informazio gutxi duten 16 eta 35 bitarteko gazteak dira.

Halere, gazteekin lan egiten dutenek edota lan munduko baliabideei eta eskubideei buruzko zalantzarik dutenek ere erabil ahal izango dute.

### Lortzeko

Deskargatzeko hemen: [Gazteentzako laneko gida](#).

### Harremanetarako

Sergio García (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12

Posta elektronikoa: [planjovent@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjovent@vitoria-gasteiz.org)


### Oharrak

Oso gida erabilgarria suertatu daiteke lehenengo lan-esperientziak izaten direnean.

## BALIABIDEA: “Nola Landu parte hartzea ikastetxeetan: Gida praktikoa”

Nola landu parte hartzea ikastetxeetan?

### Gida praktikoa



#### Deskribapena

Orientazio errazak eta arau praktikoaren sorta bat, lan parte hartzaileari eta taldeko lanari ekiteko, bai Batxilergoan bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Tresna malgu eta praktikoa honetan irakasleak, tutoreak edo orientatzaileak hiritarren parte hartzea lan egiteko baliabideak aurki ditzake. Saioa pare batetan landu daiteke sentsibilizazioa edo saio sorta batetan (8-12) klaseko taldearekin parte hartze prozesu oso bat garatu daiteke. Prozesu horren gaia klaseak berak erabaki beharko du.

#### Formatua

Gida honetan maila edo ibilbide ezberdinak daude, irakasleak aukera ditzakeela nahi dituen aktibitateak. Bertan erabiltzeko materialak eta aholkuak sartu dira. Bai euskaraz, bai gazteleraz aurki daiteke.

#### Hartzaileak

Arlo hauek ematen duten irakasleentzat: Hiritarren Hezkuntza, Etika eta hiritartasuna, Batxilergoko 1. mailako filosofia. Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Hezkuntzako tutoreentzat. Bigarren Hezkuntzako orientatzaileentzat eta Aisialdiko edo hezkuntza ez formaleko taldeetako monitoreentzat.

#### Lortzeko

[Web orri honetan lortu](#)

#### Harremanetarako

Modesto Amestoy (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 11.  
Posta elektronikoa: [planioven2@vitoria-gasteiz.org](mailto:planioven2@vitoria-gasteiz.org)

#### Oharrak

Udalaren Gazteria Zerbitzuarekin kontaktatu ahal da, parte hartzeko prozesuren bat martxan jartzeko zailtasunak izanez gero eta Udalaren laguntza eskatzeko, lan egiten den arloko teknikarien laguntza.

## BALIABIDEA: “Gazte-lonjei buruzko bideoak”

### Deskribapena



Bideo hauetan, gomendio batzuk aurkezten dira lonjaren esperientzia ahalik eta seguru eta abegikorren izateko. Gomendioen bideoak umore-gakoan daude.

### Formatua

Bideoa bi kasuetan, lehenengoa DVD bat da eta bigarrena, webean deskargatzeko artxibo bat da  
Lehenengo DVD bakarrik gaztelaniaz dago eta beste bideoak elebrietan daude.

### Hartzaileak

14-30 urteko gazteak, lonjen erabiltzaileak edo lonja bat edukitzen pentsatzen ari diren gazteak.

Lehenengo bideoa gure hiriko lonjen errealitatea ikusteko eta gero gelan lan egitekoa da, bigarrean segurtasun eta bizikidetzaren garrantzia ikusten da eta hau hobetzeko, gomendio batzuk ematen dira.

### Lortzeko

Lehenengoa eska dezakezu gazteria atalean. Gomendioen bideoak ordeztu, webgune honetan lor dezakezu: [www.vitoria-gasteiz.org/gaztelonjak](http://www.vitoria-gasteiz.org/gaztelonjak)

### Harremanetarako

Sergio García (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12  
Posta elektronikoa: [planjoven@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjoven@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Gomendioen bideoak umore-gakoan daude, fikzio pertsonaia batek zuzenduta, Superlonjez delakoa.

## BALIABIDEA: "Erantzunkidetasunaren inguruko erakusketa



### Deskribapena

Erantzunkidetasuna lantzeko erakusketa. Helburua: etxeko lanetan eta pertsona helduen eta txikien zainketan gizonak eta emakumeek ematen duten denboraren aldeaz gazteek eztabaidatzea, hausnartzea eta ohartzea.

### Formatua

Goi mailako Arte eta Diseinu Eskolako ikasleek sortutakoa, 21 irudi-begirada eta gazte hizkuntza freskoa..

### Hartzaileak

DBHko bigarren zikloa eta Lanbide Hezkuntza

### Lortzeko

Gazteria zerbitzura deitzea: 945 131311

### Harremanetarako

Mertxe Altuna (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 13 11.  
Posta elektronikoa: [juventudt1@vitoria-gasteiz.org](mailto:juventudt1@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak


Erakusketa ikastetxera eraman nahi izanez gero, ezinbestekoa da ikastetxean toki aproposa izatea, bertan jartzeko.

Erakusketaren garraioaz, muntatzeaz eta desmuntatzeaz Gazteria Zerbitzua arduratuko da.



## BALIABIDEA: "Zure esku ere badago/También está en tu mano"

### Dekribapena



"Zure esku" kanpainaren helburu nagusiak honakoak dira:

- Emakumeen ahalduzko sustatzea.
- Gazteen heziketan eragitea harreman libre, osasuntsu, berdintasunezko, begirunetsu eta arduratsuak izan ditzaten.

Horretarako, aurki ditzakegu Gasteizen kokatutako hainbat komiki eta erlazionatuta dauden unitate didaktikoak.

### Formatua

Komikiak formatu elektronikoa eta WhatsApp formatuan ere. Euskaraz/ gazteleraz.

### Hartzaileak

Gazteei bideratuta daude eta haiekin lan egiten dutenei..

### Lortzeko

Kanpainaren informazio guztia ikusteko eta komikiak deskargatzeko honako web orrian sartu: [www.vitoria-gasteiz.org/zureesku](http://www.vitoria-gasteiz.org/zureesku)

Jorratzen diren gaiak honakoak dira:

- Harreman erotiko konpartituak eta emakumeen plazera.
- Edertasun ereduak eta norberaren gorputzaren onarpenera.
- Bitarteko birtualetan hartu beharreko oinarriko babes neurriak.
- Maitasun erromantikoaren eredutik harago, zeintzuk dira benetako bikote "idealaren" osagaiak?
- Inguruan dauden baliabideak, lehen koito harremanak ahalik eta positiboak izan daitezten laguntzen duten faktoreak.
- Elkarrekin komunikatzeko hainbat modu daude.
- Aurreiritziak alde batean, aniztasunak dakarren aberastasuna bestean.
- Maskulinitate-ereduak, jazarpena sexu edo generoagatik.
- Harreman begirunetsuak jai- eta aisialdi-guneetan.

Izan nahi nahi badituzu **unitate didaktikoak edota komikien WhatsApp formatua** dei ezazu Gazteria Zerbitzura.

### Contacto

Sergio García (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12

Posta elektronikoa: [planjoven@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjoven@vitoria-gasteiz.org)

## BALIABIDEA: Aholkularitza Juridikoa

### Deskribapena



Udalak isilpeko eta doako zerbitzu hau eskaintzen du gazteei laguntzeko. Bertan abokatuek entzuten, orientatzen eta laguntza ematen dute edozein lege galdera argitzeko (lan kontratuei, aseguruiei, mugikorrei, drogei, alokairuei, eta abarri buruz.)

Gazteentzako Lege Aholkularitza informazio eta orientazio zerbitzu bat da, hau da, ez dute defentsa juridikorik egiten. Horretarako, beste zerbitzu batera jo behar da.

### Formatua

Elkarrizketa presentziala.  
Zerbitzua bai euskaraz, bai gazteleraz eskaintzen da.

### Hartzaileak

16 eta 35 urte bitarteko gazteak.

### Lortzeko

Aldez aurreko hitzordua OMIJ-en (Gazteentzako Informazio Bulegoan) eskatu behar da. (Espainia plaza, 1). Telefonoa: 945 131330.

Posta elektronikoaren bitartez: [infogaztea@vitoria-gasteiz.org](mailto:infogaztea@vitoria-gasteiz.org)

### Harremanetarako

Sergio García (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12


Posta elektronikoa: [planjovent@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjovent@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Aholkularitza juridikoa Landatxo gizarte etxean dago (Santa Maria kalea, 4).

## BALIABIDEA: Hitzaldia: "Sexualitatea eta gazteak"

### Deskribapena



Asexoriako adituen hitzaldia gazteentzat. Parte-hartzeko dinamikien bitartez nerabezaroko sexualitatearen berezko ezaugarriak aztertuko dira, eta geure buruarekin zein besteekin gustura sentiarazten gaituzten sexualitate-bizipenen eta jokaera erotikoen gainean hausnartuko da. Batez ere, garrantzia emango zaie pertsonen arteko harremanetan errespetuz eta arduratsu jokatzeari, eta aniztasun sexualari (modu anitzak emakume ala gizon izateko, desiratzeke, erlazionatzeko...).

Gainera, Asexoria zerbitzua aurkeztuko da.

### Formatua

Hitzaldia, gelan egiten da eguna eta ordua behin zehaztuta, Asexoriaren langileak hara joaten dira.

Gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen da.

### Hartzaileak

14-30 urteko gazteentzat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa eta Helduen Hezkuntza Iraunkorra

### Lortzeko

"Vitoria-Gasteiz Hiri-Hezitzailea -2017-2018 ikasturtea-" izeneko gidan agertzen den jarduera.

Hemen eskatu: ["Sexualitatea eta gazteak" hitzaldia.](#)

### Harremanetarako

Sergio García (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12

Posta elektronikoa: [planjovent@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjovent@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Iraupena: ordubete.

Parte-hartzaile kopurua, gehienez: 30 pertsona

**BALIABIDEA:** Hitzaldia: “Bikotekidea kontrolatzea eta mugikorra”

### Deskribapena



Telefono mugikorra gure eguneroko bizitzarako funtseko tresna bihurtu da, gazteen artean batez ere. Bikotekideak elkarrekin komunikatzeko funtsezko tresna izateaz gain, tentsioak sortzeko baliabide ere bihurtu da

Hitzaldi honen bitartez mugei buruz hausnartu egingo da: non dauden mugak erlazioetan erabiltzeko, zer den besteaz arduratzea eta zer den bestea kontrolatzea. Eta hau dena hautematea, edo ez, tratu txar bezala.

### Formatua

Hitzaldia, gelan egiten da eguna eta ordua behin zehaztuta, Asexoriaren langileak hara joaten dira. Gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen da.

### Hartzaileak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa eta Helduen Hezkuntza Iraunkorra

### Lortzeko

“Vitoria-Gasteiz Hiri-Hezitzailea -2017-2018 ikasturtea-” izeneko gidan agertzen den jardura.

Hemen eskatu: [“Bikotekidea kontrolatzea eta mugikorra”](#).

### Harremanetarako

Sergio García (Gazteria Zerbitzua). Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12

Posta elektronikoa: [planjoven@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjoven@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Iraupena ordubete.

Parte-hartzaile kopurua, gehienez: 30 pertsona

**BALIABIDEA:** Hizaldia: “Gazteentzako aholkularitza psikologikoa”

#### Deskribapena



Gazteentzako aholkularitza psikologikoko profesionalak osasun psikologikoaren garrantziaz mintzatuko dira, gaztaroko ezaugarri normalizatuak zeintzuk diren azaldu eta gazteek topatu ahalko dituzten arazoak aipatuko dituzte. Gainera bakoitzak bere burua ezagutu eta onartzeko jarraibideak emango dituzte arazo bilakatu daitezkeen zenbait jokoera eta portaera ekiditzeko asmoz.

#### Formatua

Hitzaldia, gelan egiten da eguna eta ordua behin zehaztuta, Psicoasesoriaren langileak hara joaten dira.

Gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen da.

#### Hartzaileak

14-30 urteko gazteentzat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa eta Helduen Hezkuntza Iraunkorra

#### Lortzeko

“Vitoria-Gasteiz Hiri-Hezitzailea -2017-2018 ikasturtea-” izeneko gidan agertzen den jarduera.

Hemen eskatu: [“Gazteentzako aholkularitza psikologikoa” hitzaldia.](#)

#### Harremanetarako

Sergio García. Telefonoa: 945 16 16 16 luz. 32 12

Posta elektronikoa: [planjoven@vitoria-gasteiz.org](mailto:planjoven@vitoria-gasteiz.org)

#### Oharrak

Iraupena ordubete.

Parte-hartzaile kopurua, gehienez: 30 pertsona

## BALIABIDEA: “Ezagutu Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa – OMIJ” Bisitaldien programa



### Deskribapena

Gazteen Argibideetarako Bulegoaren (OMIJen) bisitaldia. Ordu betez, gutxi gorabehera, gazteentzako errekurtsio, zerbitzu eta informazioa azalduko dira, baita behar duten informazioa lortzeko erabil ditzaketen tresnak eta baliabideak ere. Landuko diren arloak, batez ere, hauexek izango dira: ikasketak eta diru-laguntzak, lana eta lanerako prestakuntza, gazte mugikortasuna (Ikasi, lan egin, boluntariotza, bidaiak... atzerrian), aisialdi jarduera eta zerbitzuen eskaintza, gazteentzako udal zerbitzuak (Psikoasesoria, Asexoria, Hizkuntza Kluba...), eta taldeak proposaturiko beste hainbat gai.

### Formatua

Ikus-entzunezko eta beste hainbat materialez (liburuxkak, flyerrak...) lagundutako azalpena egingo da eta, horren ondoren, instalazioa eta bere iragarkitaulak ikusiko dira.

### Hartzaileak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa, Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta beste hainbat gazte talde.

### Lortzeko

“Vitoria-Gasteiz hiri hezitzailea” argitalpenean dagoen izen-emate fitxa bete beharko da: [OMIJen bisitaldia egiteko eskaera](#)

### Harremanetarako

Esi Sanz (Gazteria Zerbitzua). Teléfono: 945 16 13 30  
Posta elektronikoa: [coordinaomij@vitoria-gasteiz.org](mailto:coordinaomij@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Jarritako ordutegi zein egutegiz kanpoko bisita eskabideak banan banan aztertuko dira.  
Bestalde, bisitaren edukiak taldearen baldintza berezietara egokitzeko ere programaren arduradunarekin hitz egitea gomendatzen da.



## BALIABIDEA: “Hizkuntza Kluba”



### Deskribapena

Hizkuntza Klubak ikasten ari diren hizkuntzak praktikatzeko eta hobetzeko topagunea eskaintzen du, baita jatorrizko herrialdeko hizkuntza beste pertsona batzuekin partekatze ere.

Ez da gramatika, ariketak... egiteko hizkuntza ikastaro bat. Landuko dena hitz-jarioratasuna izango da

Horretarako, saio guztiak UPV/EHUko Letra Fakultatearen ikasle gazteek kudeatuko dituzte. Monitoreek gai askotariko jarduerak antolatuko dituzte taldean elkarriketa ezberdinak sortarazteko, eta hori guztia, giro ludiko eta partizipatibo batean

### Formatua

Letren Fakultateko ikasleek kudeatutako saioak, non jarduera dibertigarri eta partizipatiboan bitartez, egoera dinamiko eta interesgarriak sortzen diren. Parte hartzaileek beldurra kenduko diote mihia dantzatzeari aukeratzen duten hizkuntzan.

Horrez gain, saioetan lantzen dena indartzeko, gelaz kanpoko jarduerak ere antolatzen dira noizbehinka (bisita gidatuak, solasaldiak, lantegiak...).

### Hartzaileak

Gasteizen bizi, ikasi edo lan egiten duten 16 urtetik 35era bitarteko gazteak.

### Lortzeko

Hizkuntzak, taldeak, izen-ematea eta informazio gehiago ikusi ahal da Hizkuntza Klubaren web gunean ([www.vitoria-gasteiz.org/hizkuntzakluba](http://www.vitoria-gasteiz.org/hizkuntzakluba))

### Harremanetarako


Esti Sanz (Gazteria Zerbitzua/OMIJ). Telefonoa: 945 16 13 30.

Posta elektronikoa: [coordinaomij@vitoria-gasteiz.org](mailto:coordinaomij@vitoria-gasteiz.org)

### Ohar praktikoak

Baliabide hau ikastetxeetan irakasten diren hizkuntzen osagarri moduan erabiltzea gomendatzen da: euskara, frantsesa, ingelesa, atzeritarrentzako gaztelania...

## BALIABIDEA: “Gazte Informatzaileen Sarea”/ OMIJ Diru-hornidurak



### Deskribapena

**Gazte Informatzaileen Sarea** ikasle gazteek osatzen dute. Gazte horiek heuren ikastetxeetan protagonistak bihurtzen dira haien eguneroko zein etorkizunerako emantzipaziorako behar duten informazioaren bilaketan eta zabalkundean. Informazio horren gaien artean honako hauek azpimarratu behar dira: gazteentzako zerbitzu eta baliabideak, prestakuntza, bekak eta diru-laguntzak, lehiaketak eta deialdiak, enplegua, aisialdia eta beste batzuk.

OMIJek Gazte Informatzaileen Sarea koordinatzen du eta, horretarako, prestakuntza eskaintzen die, baita gehien interesatzen zaien informazioaren bilaketan eta zabalketan lagundu ere.

Gazte informatzaileek diru hornidura bat jasotzen dute heuren ikasturteko lanaren truke.

### Formatua

Gazteei gehien interesatzen zaien informazioa ahalik eta zabalketa gehien emateko, bi euskarri erabiltzen dira:

- 1.- **Informazio Taulak**.- ikastetxeetan kokatzen dira.
  - 2.- Harreman, informazio eta komunikaziorako **Esparru Birtuala**.-
    - Webgunea: [www.vitoria-gasteiz.org/informatzailesarea](http://www.vitoria-gasteiz.org/informatzailesarea)
    - Twitter: @VG\_gaztea
- Facebook: OMIJ - Informazio Gaztea

### Hartzaileak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ondokoa, Helduen Hezkuntza Iraunkorra eta beste hainbat gazte talde.

### Lortzeko

Hona hemen deialdiaren oinarriak: [Gazte Informatzaileen Sarean parte hartzeko oinarriak](#).

I., II. eta III. eranskina bete behar dituzte interesaturik dauden ikasleen ikastetxeek; eta [infojovent2@vitoria-gasteiz.org](mailto:infojovent2@vitoria-gasteiz.org) helbidera bidali behar dira. Epea: **2018ko irailaren 24ko 14:00ak arte**.

### Harremanetarako

Valentín Mendoza (Gazteria Zerbitzua). Teléfono: 945 16 13 30  
Posta elektronikoa: [infojovent2@vitoria-gasteiz.org](mailto:infojovent2@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Eskaera eta eranskinak interesaturik dauden ikasleen ikastetxeek bete behar dituzte.



## BALIABIDEA: “HAZIAK, BULEGOA”/ Ideia gazteak”



**Bulegoan zure  
ideiak gauzaten  
laguntzen dugu.**



### Deskribapena

**Haziak bulegoaren** helburua gazteen proiektuei forma ematea eta proiektuak bilakatzeko laguntza teknikoa eskaintzen du kultura, kirola, aisia, sorkuntza eta berrikuntza, teknologia berriak, ingurumena eta jasagarritasuna... moduko gaien inguruan gazteen ideiak nahiz proiektuak gauzatzeko.

### Formatua

**Haziak bulegoak** gazteen proiektuak egingarriak izateko laguntza teknikoa ematen du, baita ideiak bideratzeko eta martxan jartzeko hainbat baliabide ere; esaterako: beharrezkoak diren baimenak lortzea, ikus-entzunezko materiala maileguan uztea, proiektua ezagutarazten laguntzea, espazioen bilaketan sostengua ematea, eta gazteentzako egindako ekimenen topagunea ahalbideratuz, beti ere, gazteak euren esperientziaren jabeak izanez.

Haziak bulegoak, udaberriro, [Ideia gazteen lehiaketa](#), martxan jartzen du. Lehiaketa hori ia denetara dago zabalik: lantegiak, topaketak, entseguak, muralak, proiektzioak, sormenerako espazioak, film laburrak, profesionalekin eta beste gazte batzurekin hartuemanak.

### Hartzaileak

Vitoria-Gasteizen erroldatuta dagoen edozein gazte edo gazte talderentzat da, beti ere 14 eta 30 urte bitartekoa bada.

### Lortzeko

Deitu 945 161990 telefonora edo hitzordua eska dezakezu hurrengo helbide elektronikoan: [haziak@vitoria-gasteiz.org](mailto:haziak@vitoria-gasteiz.org)

### Harremanetarako

Amaia Rescalvo (Servicio Juventud). Teléfono: 945 16 19 90.  
Posta elektronikoa: [haziak@vitoria-gasteiz.org](mailto:haziak@vitoria-gasteiz.org)

### Oharrak

Gazteen proiektuak Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan/ OMIJ (España plaza, 1, behe) eraman edo [haziak@vitoria-gasteiz.org](mailto:haziak@vitoria-gasteiz.org) helbide elektronikora bidal daitezke.